



abaraxka

AZKOITIA HOSTEL

TURISMO ATERPETXEA
BSS00037

Ikasleen irteeretakako aukera zoragarria Azkoitian



**2023-2024
ikasturterako
eskaintza**



**Leku ederra, lasaia eta segurua da Abaraxka.
Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat programa
didaktikoa eta entretenigarria eskaintzen dizuegu.**

Abaraxka aterpetxea Euskal Herriaren bihotzean dago, Gipuzkoan, Urola bailararen erdialdean.

Azkoitia 12.000 biztanle inguru dituen herria da. Euskal Herrian dagoen eremu euskaldunenetako batean kokatua, Loiolako Santutegitik 3 kilometrora. Abaraxka herriaren gainaldean dago. Zentroa, oinez, 5 minutu pasatxora dago bakarrik. Kukuerra izena duen bailara txiki baten hasieran, Munoandi-ko Burdin Aroko herri harresituaren bidean. Mendiei (herriak bueltan dituen mendi guztiei) begira gaude, inguru naturalean beraz, gune lasai eta ederrean.

Abaraxkan, guztira, 50 pertsona sar daitezke lotara, lasai eta eroso. Jatetxe ederra ere badaukagu (bertatik Loiolako Santutegia eta Hernio mendia ikusi daitezke) eta mota askotako ekimenak antolatu ahal izateko areto mundiala, 100 pertsonantzako kapazidadearekin. Hiru terraza zoragarri eta lorategia ditu Abaraxkak.

EGONALDIAREN HELBURUAK

- Ondo pasatzea.
- Umeen garapen pertsonalean lagungarri izatea. Segurtasuna eta konfidantza lantzea.
- Beste hurrekin zein ingurumenarekin harreman-elkarrekintza positiboa garatzen laguntzea.
 - Berdintasunean eta errespetuan hezi eta bizieta.
- Prozesu partehartzaileak bultzatzea. Ikasleen jarrera aktiboa elikatzea.
 - Kultura oro har eta euskal kultura bereziki, ezagutzea.

EKINTZAK

JOLAS MODULARREN TAILERRA

Material desberdinekin eraikuntzak egiteko eta jolas sinbolikoan aritzeko aukera sortzen dugu tailer honetan. Enborrak, tablak, kuboak, lasto fardoak, kaxak, poleak, mosketoiak, sokak, pneumatikoak, lonak eta eskilarak libreki aukeratuz, batuz eta elkarbanatuz arituko gara.



BASOTIK BASORA

Basoa gorputz guztiekin sentituko dugu. Entzunez, begiratu, ikutu, ibiliz, zainduz zein gozatu, basoa izaten ikasiko dugu bakarka eta taldean.

Bertan honako ekintzak garatu ahalko dira:

- Orientazioa.
- Elkarlanean arituz intelgentzia mota ezberdinak lantzeko ekintzak.
- Sua egiten ikastea
- Superbibentziako teknikak ikasteko ekintzak
- Landare eta fruitu jangarrien ezagutza eta erabilera ikasteko ekintzak
- Zuhaitz eta zuhaixkak ezagutzeko ekintzak
- Zentzumenak esnatzeko ekintzak
- Meditazioak
- Animalia basatien arrastoak ezagutzeko ekintzak

SORMENA MUSIKAZ INGELERA

Jatorri britaniarra duen gure dinamizatzaillearekin kultura anitzeko erritmoekin esperimentatuko dugu, ingeleraz. Talde jolasen bitartez, guk geuk birziklatutako batukada sortuko dugu.

Musikaren bidez, eta ondo pasatuz, sormena landu, elkar entzun eta autoestimua igotzeko ekimen aproposa proposatzen dugu, denok garelako musika egiteko gai eta baita gauza berriak sortzeko ere. Irudimena, besteak entzutea eta elkarlana landuko ditugu, ingelera hizkuntzan arituz.



FILOSOFIA ETA ARTE PERFORMATIBOA

Pentsatze kolektibo eta praktiko bat sustatzera bideratutako tailerra da hau.

Ideiekin jolastuz, sormena landu eta hitzez azaltzeko gaitasuna sustatzea ditu helburu.

Tailer honetan, ipuinak, antzerkiak, bideo laburrak eta abar landuko ditugu.



ESKALADA

Azkoitiako kiroldegian eskalada tailer bat eskaintzen da.. Jolastu eta kooperazioa lantzen dugun bitartean eskalatzen ikastea du helburu.

ESPAZIO ANITZAK ETA ZABALAK

- Abaraxkak espazio anitzak eta zabalak ditu denbora librean bertan pasa ahal izateko. Ping-pong mahaia eta mahai-jokoak egiteko materiala ere badugu.

GAUBELETARAKO ARETOA

-Leku aproposa eta berezia da gure aretoa GAUBELETARAKO. Musika ekipoa, mikroak, "diskoteka" argiak, proiektorea eta pantaila egongo dira aretoan gaubelak antolatzeko.

NATURAN KOKATUA, IBILALDIETARAKO TOKIA

- Paseo politak eta errazak ere egin daitezke inguruan: Loiolara bide gorria jarraituz, edo Kukuerrin barrena. Astarbeko frontoira ordu erdiko ibilaldia dago eta Kukuerritik gora hartuta Loiolara ere jaitsi daiteke, eta handik buelta Abaraxkara bidegorria jarraituz (pare bat orduko buelta ederra).

HERRIAN BERTAN, DENA ESKURA

- Herria bertan dago, gainera: San Martingo auzo berezia, herriko eraikin historikoak, frontoi ezberdinak (Oteizaren Frontoi ikusgarriak, Udaletxe azpiko Kontzejupe, Goikolosa...). Dena dago eskura.

KULTUR ESKAINTZA INGURUAN

- Eskualdeak aukera zabala eskaintzen du, beste zerbait egin nahiko bazenute ere zuen kontura: Loiolako Santutegi ikusgarria, Ekainberri, Izarraitz mendilerroa, Tren Museo zoragarria Azpeitian...

INGURUGIRO ETXEA ETA XAGUXATAR PARKEA

- Gure aterpetxetik orduerdi pasatxora oinez Urolako bide berdetik daukazu Azpeitiko INGURUGIRO ETXEA MUSEOA "EKOETXEA". Bertan doaneko ingurumen heziketako eskaintza duzue zuen eskura.

- Oso aukera polita da ere Azpeitiko XAGUXATAR BIDEA, bi orduko ibilbide oso entretenigarria.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskatu egiguzue lasai.

ATERPETXEKO ESPAZIOAK



Aterpetxean **50 ohe ditugu, zazpi gelatan banatuta**. Guztietan 90x1,90 neurriko oheak daude, oso erosoak. Gela guztiak oso argitsuak dira. Hiru logela Loiolako Santutegiari begira daude eta besteak hegoaldeko basoei begira.




Bi bainugela handi daude pasillo berean. Hirugarren bainugela bat mugikortasun arazoak dituztenentzat egokituta dago. Ile-lehorgailuak eta eskutako zein dutxarako gelak daude bainugelatan.

Sala txiki bat dugu prestatua, mikrouhinarekin eta hozkailuarekin. Bere ondoan, terraza zoragarri bat.



90m2tako JANGELA



Abaraxkako jangela espazio zabal bat da, leihate handi batekin. Bertatik, Loiolako Santutegia eta inguruko mendiak ikusten dira: Txalintxo inguruko gainak edota Hernio mendia.



165m2tako ARETOA

Ikastaroak, bilerak, topaketak, ospakizunak, musika, antzerkia... iha edozer antolatzeko modukoa. Izarraitz mendikateari begira.



Gau bat edo bi pasatzeko proposamen bat

Aurreneko eguna:

9:30-10:00 Harrera

10:00-13:00 TAILERRA

13:30-14:30 Bazkaria (etxetik ekarritakoa)

14:30-15:30 Denbora librea + merienda (etxetik ekarritakoa)

15:30-18:30 TAILERRA

18:30-20:00 Denbora librea

20:00-20:30 Afaria

20:30-21:30 Gaubela

Bigarren eguna:

9:00-10:00 Gosaria

10:00-13:00 TAILERRA

13:30-14:30 Bazkaria

14:30-15:30 Denbora librea

15:30-18:30 TAILERRA eta merienda

18:30-20:00 Denbora librea. Dutxa

20:00-20:30 Afaria

20:30-21:30 Gaubela

Azken eguna:

8:00-9:00 Esnatu eta gelak hustu

9:00-10:00 Gosaria

10:00-13:00 TAILERRA

13:30-14:30 Bazkaria eta agurtzea

Lo egitea + pentsio osoa gau bat	39,00€
Lo egitea + pentsio osoa bi gau	78,00€

Tailer bakoitzaren prezioa umeko + 9,50€

Eskalada ikastaroan kiroldegirako sarrera gehitu behar da, +4€

Bestelakoak:

Lehenengo eguneko bazkaria +9,50€

Lehenengo eguneko merienda..... +2,00€

Izarak +3,00€

Toalla +2,00€

**Prezioak pertsona bakoitzeko (BEZ barne)*

**Ikastetxearen beharretara egokitzen gara. Bi gau, hiru gau...
Esan zer nahi duzuen eta proposamena prestatuko dizuegu.**

Aurrekontua eskatu dezakezu
679464473 telefonora deituz edo
info@abaraxka.eus korreora
idatziz, inolako konpromisorik gabe